


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/06/26)</b>  Hurrengo saioa: 2018/07/10	Euskara ikasteko kurtsoa	Izena eman dutenekin larunbatean hilak 30 bilera egitea adostu da. Deialdia berriro luzatuko da WhatsApp-ez beste edozein animatzen bada, jakin dezan.	Irakasle lanetan aritzeko herritarren artean galdetu.
	Datorren kurtsorako ikastaroak	Iaz bezala eskaintzak inkesta bidez luzatzea adostu da. Egindako eskaintzaz gain, proposamen berriak ere jasoko dira. Eskaintzen artean aurten lehengo urteko ez gain, zeramika, euskara, gantxiloa, oinarrizko sukaldaritza, heldu autonomoen ariketa psikosozialak eskaintzea planteatu da. Taldearen nahia uztail bukaerako izenemateak eginak egotea da, kurtsoen antolamendua errazteko.	Komunikazio batzordean jakinarazpena prestatu ondoren, oharra herrian zabaldu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/06/27)</b> Hurrengo saioa: 2018/07/11)	Alegiko obra	<ul style="list-style-type: none"><li>- Alegiko obran, Antio enpresaren likidazioa 72.879,24 € izan da. Hasierako aurrekontuari gehitu zaizkio komuneko barra eta eserlekua, eta elkarteko pareta pintatzea (71.130,25€takoa izan zen adjudikazioa). Jolas parkea jartzearena (Maderplay) 14.404,92€, eta arotzari ordaintzeko elizatariko bankua eta jolas parkeko bankuaren "respaldo" a 2.360,47€.</li><li>- Parkean bankuak/mahaiak behar diren Alegiko festa ondoren baloratuko da alegiarrekin (bilera bat aurreikusten da uztail bukaeran).</li><li>- Parkean jarri den lorategiko landareak ureztatzeko mangera bat jarriko da eta landareen artean tela asfaltikoa eta pinu azala jartzea adostu da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Alegin egin beharreko bilera prestatu.</li><li>- Lorategia itxuraz mantentzeko baliabideak jarri</li></ul>
	Leader programa	<ul style="list-style-type: none"><li>- Udaletxearen obraren txostena ekainaren 29an bidaliko da. Obrari erabilpen administratiboa eman zaio eta baldintza batzuk bete behar ditu: ganbarako zorua sendotu eta altxatu beharko da, teilatuko egiturak suteen aurkako neurriak bete behar ditu,...</li><li>- Udaletxe ingurua ere sartu da proiektuan: ataria moldatzea, errepidea peatonalizatzea, ...</li><li>- Aurrekontu osoa 305.465,86€-koa da.</li></ul>	
	Teilatueto itukinak	Goiko Ostatuko, Udaletxeko eta Eliza atariko teilatuak arakatuko dira eta dauden itukinak konponduko ditu J.C. Gorrotxategik	



**ITSASOKO  
UDALA**  
(GIPUZKOA)

	Langilearen kontratazioa	Lanbidek ateratako dirulaguntza deialdian sartzeko aukera jorratuko dugu (momentuz ez gaude inongo Garapen Agentzietan eta honek zaildu egiten du). Beste aukera batzuk aipatu dira: Nekalde enpresa (Udaletan ere zerbitzua eskaintzen duena) baserri bideak desbrozatzeko,... Gure gaur egungo beharretarako lanaldi erdiz lau hilabeteko kontratua egin beharko genuke.	- Aukera ezberdinak lantzen jarraitu
	Ikurrina	Ikurrina udaletxe aurreko berdegunean jarri nahi da (masta kolore zuriz lakatua). Honen prezioa: 484€	

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOIA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 07/03)</b>  Hurrengo saioa: 2018/07/17)	Herri Batzarreko akta	Ekainaren 30ean izandako Herri Batzarraren akta osatu dugu.	
	Euskara klaseak emateko	Euskara klaseetarako bi talde osatu dira eta ikasleekin adostutako ordutegian klaseak emateko irakaslea herritarra izatea lehenetsi da.	Eskaerak aztertu
	Kirol jarduera eskaintza eta gainontzeko aktibitateak	Datorren ikasterterako egingo den Kirol eskaintzaren jakinarazpena prestatu da. Gainontzeko ekintzen plangintza gehiago zehaztea erabaki da (zeramika, gantxiloa, oinarritzko sukaldaritza, ...)	- Kirol eskaerak aztertu eta Sozio-kultural batzordera eraman - Bestelako ekintzen plangintza adostu eta jakinarazpena prestatu